# BESTELAKO XEDAPENAK

## INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

## 1917

*EBAZPENA, 2015eko apirilaren 20koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bitartez, deialdi publikoaren bidetik, honako prozedura hastea erabakitzen baita: Elantxobeko (Bizkaia) portuan amarralekuak erabiltzeko baimenak emateko prozedura.*

Elantxobeko portuak baditu profesionalentzat ez diren aisia-ontzientzako amarratze-instalazioak; eta horiek okupatzeko, amarralekuak erabiltzeko baimena edo titulu administratibo bat izan behar da aldez aurretik.

Euskal Autonomia Erkidegoaren titularitatepeko postuetan baimen horiek emateko prozedura ezarrita dago agindu honetan: Garraio eta Herri Lan sailburuaren 2004ko apirilaren 20ko Agindua, zeinarekin honako prozedura hau arautzen baita: Euskal Autonomia Erkidegoaren titularitatepeko portuetan eta portu-instalazioetan, profesionalentzat ez diren aisia-ontzien titularrek amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko dena. Eta agindu horren 3. artikuluan zehazten denez, amarralekuak lortzeko eskabideak egiteko epe bat irekiko du Administrazioak, hain justu ere eskudun agintaritzaren ebazpen bidez egindako deialdiaren iragarki batekin, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den.

Aurrekok guztiagatik, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 6.e) eta 14.1.m) artikuluek eta Euskal Autonomia Erkidegoaren titularitatepeko portuetan eta portu-instalazioetan, profesionalentzat ez diren aisia-ontzien titularrei amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura arautzen duen Garraio eta Herri Lanetako sailburuaren 2004ko apirilaren 20ko Aginduak zuzendaritza honi ematen dizkioten ahalmenez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Deialdi publikoaren bitartez, honako prozedura honi hasiera ematea: Elantxobeko portuan amarralekuak erabiltzeko baimenak emateko dena, betiere ebazpen honen I. eranskinean jasotako oinarriekin bat etorriaz.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez dio bukaera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Garraioetako sailburuordeari edo ebazpena eman duenari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunenetik aurrera sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 20a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO.

## ERANSKINA: OINARRIAK

**Lehenengoa.– Deialdiaren xedea.**

1.– Deialdi honen xedea hauxe da: Elantxobeko portuan amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak ematea.

2.– Profesionalentzat ez den aisia-ontzi baten titular den orok aurkez dezake eskabidea.

**Bigarrena.– Eskainitako amarralekuak.**

1.– Ehun eta berrogeita hamazazpi (157) amarraleku eskaintzen dira, ondoren zehaztu bezala banaturik:

| Amarraleku-maila | Eskainitako amarraleku kopurua |
|---|---|
| A.– pantalan-amarraleku: | |
| A.1.– 6 metroko edo gutxiagoko luzerarekin | 64 |
| A.2.– 6 metro baino gehiagoko luzerarekin eta 7 metro edo gutxiagokoarekin | 12 |
| B.– urte.ko buia-amarraleku: | |
| B1.– 5 metroko edo gutxiagoko luzerarekin | 19 |
| B.2.– 5 metro baino gehiagoko luzerarekin eta 6 metro edo gutxiagoarekin | 19 |
| B.3.– 6 metro baino gehiagoko luzerarekin eta 7 metro edo gutxiagoarekin | 16 |
| B.4.– 7metro baino gehiagoko luzerarekin eta 8,60 metro edo gutxiagoarekin | 16 |
| B.5.– 8,60 metro baino gehiagoko luzerarekin eta 12 metro edo gutxiagokoarekin | 10 |
| B.6.– 12 metro baino gehiago luzerarekin eta 14 metro edo gutxiagokoarekin eta 4 metroko edo gutxiagoko erruna gehienekoarekin | 1 |

2.– Administrazioak badu eskumenik erabilgarri diren amarralekuen ezaugarriak eta kopurua aldatu, murriztu edo handitzeko, betiere antolaketa-planekin bat etorriaz.

**Hirugarrena.– Eskabideak.**

1.– Ebazpen honetako II. Eranskinean jasotako modelo normalizatuan aurkeztu beharko da eskabidea, zeina doan emango baita honako leku hauetan: Bizkaiko portuen lurralde zerbitzuan (Elcano 3 behea, 48011 Bilbao), eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua 1, 7. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz); betiere astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

2.– Halaber, Eusko Jaurlaritzaren orrialde elektronikoan, www.euskadi.net, ere jaso ahal izango da, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailari dagokion atalean - Garraioak –Garraio azpiegiturak– Portuak - kirol portuetan amarralekuak: «amarratzeko eskaera».

3.– Eskabidearekin batera honako dokumentazioa aurkeztu beharko da: Garraio eta Herri Lanetako sailburuaren 2004ko apirilaren 20 Aginduko 4.2 artikuluan eskatutakoa.

4.– Ontzi batek eta berorren ekipo propultsatzaileak CE marka badute, ontzi horren titularrak, idazpen-orriaren ordez, inskripzio-ziurtagiria aurkeztu ahal izango du.

**Laugarrena.– Eskabideak aurkezteko lekua.**

Eskabideak zuzenean aurkeztu ahal izango dira honako leku hauetan: Bizkaiko portuen lurralde zerbitzuan (Elcano 3 behea, 48011 Bilbao), eta Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua 1, 7. solairua, 01010 Vitoria-Gasteiz); betiere astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; baina horrek ez du eragotziko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan xedatutakoa.

**Bosgarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.**

Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 11n hasiko da eta maiatzaren 29an amaituko da, biak 2015ekoak.

**Seigarrena.–Prozedura.**

1.– Baimenak emateko prozedura honako agindu honetan ezarritakoa izanen da: Agindua, 2004ko apirilaren 20koa, Garraio eta Herri Lanetako sailburuarena, zeinarekin arautu egiten baita honako

prozedura: Euskal Autonomia Erkidegoaren titularitatepeko portuetan eta portu-instalazioetan, profesionalentzat ez diren aisia-ontzien titularrei amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura, hain justu ere.

2.– Eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean Portuko Administrazioarekin zorrak dituzten eskatzaileei ezin izango zaie inolaz ere lotunerik eman.

**Zazpigarrena.– Amarralekuak erabiltzeko baimena**.

1.– Amarralekua erabiltzeko baimenaren epea hiru urtekoa izanen da, hain justu ere deialdi honen ondorioz emandako baimenean zehazten den egunetik hara.

2.– Urte baten barruan, segidan hile baten baino luzaroago edo bi hile alternotan ez badu okupatzen plaza esleipendunak, horrek amarraleku-plaza galtze ekar liezaioke, salbu eta justifikatutako kausaren bat izan, zeina Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak aztertu eta onartu beharko duen.

**Zortzigarrena.– Argitalpen.**

1.– Bizkaiako portuen lurralde zerbitzuko iragarki-taula (Elcano 3 behea, 48011 Bilbao) eta Bizkaian gehien saltzen ziren bi egunkariak seinalatzen dira argitarapenak egiteko, zehazki lehiaketaren garapenaren inguruko informazio guztia eta deialdi honi buruzko argitarapenak, jakinarazpenen ordezkoak izango direnak, hartan emango dira argitara, salbu eta prozedurari amaiera ematen dioten ebazpenak. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 59.6.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz.

2.– Prozedura amaitzeko ebazpenak, Elantxobeko portuan amarralekuak erabiltzeko emandako baimenak jasoko ditu, baimenon ezetzak eta itxarote-zerrenda. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

**Bederatzigarrena.– Datuak babestea.**

1.– Datu Pertsonalak babesten dituen 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan xedatutakoa betez, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak jakinarazten dizu esleipendunek ematen dituzten datu pertsonalak «Emakidak eta baimenak portuko jabari publikoan» eta «Portuetako tarifak» fitxategietan sartuko direla. Fitxategi horien ardura Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak du. Jakinarazten da, orobat, amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak kudeatzea dute helburutzat datu horiek biltzeak eta tratatzeak, eta zuzendaritza horri bidaliko zaio informazioa.

2.– Datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubidea Garraio Azpiegituren Zuzendaritzan baliatu ahal izango da (Donostia kalea 1; 01010, Vitoria-Gasteiz).

## II. ERANSKINA

### ERABILTZEKO AMARRALEKUA ESKAERA

**PORTUA**: .....

**ESKATZAILEA**

Izen-abizenak : .....

NAN: .....

Helbidea : .....

Udalerria: .....PK : .....

Telef. :..... Posta elektronikoa: .....

Eskatzailea pertsona juridiko baten ordezkari denean

Ordezkatutako pertsona juridikoa:..... IFK:.....

Sozietatearen egoitza:.....

Herria: Posta Kodea:..... Telef.:.....

Beste herrialde batzuetako eskatzaileek bete beharrekoa:

Herri Ogasunarekin zerga arloko harremaneta-rako eta baimeneran ondoriozko betebeharre-tarako, Estatuan helbidea duen honako hau izendatu dut nire ordezkari:

.....jauna/andrea NAN.: .....

Helbidea: .....

Herria: .....Posta Kodea.....Telef.: .....

Banku helbideratzea

Kontuarentitularra: .....

**IBAN:** ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐☐☐ ☐☐☐☐

**ONTZIAREN DATUAK**

Izena ..... Matrikula .....

Marka ..... Modeloa .....

Gehinezko luzera: ..... Gehienezko zabalera: ..... Gehienzko zingoa: .....

.

Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak amarralekua eman dakion **ESKATZEN DU**. Hona hautatutako lehentasun-hurrenkera (begiratu deialdian eskainitako plaza-motak, esaterako: 1. pantalanean amarratuta; 2. buyara): .....

.....

Eskaerarekin batera, ezinbestean, **DOKUMENTU HAUEK** aurkeztuko ditu, **jatorrizkoa eta konpultsatzeko kopia edo kopia konpultsatua**, hain zuzen ere:

☐ a. Pertsona fisikoek: NAN edo pasaportea edo AIZ.

☐ b. Pertsona juridikoek: eratzeko eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio-akta, kasuaren arabera dagokion erregistroan inskribatuta, eta eskatzailearen izenean egindako ordezkaritza-ahalordea, hori ere dagokion erregistroan behar bezala inskribatuta.

☐ c. Kirol eta aisia ontzien zerbitzuengatiko tasa ordaindua duela egiaztatzen duen agiria.

☐ d. Pentsioduna izanez gero, horren ziurtagiria aurkeztuko da, kasuan kasuko erakunde ofizialak emandakoa.

☐ e. Nabigatzeko baimena.

☐ f. Eskatutako amarralekuan egongo den itsasontzia gidatzeko eskubidea ematen duen ziurtagiria, eskatzailearena edota ontzia gidatuko duenarena. Pertsona hori nabigatzeko baimenean sartuta egongo da, edota titularrak edo titularkideak idatziz baimenduta.

☐ g. Ontziaren idazpen-orria, ontziaren titular gisa amarralekua nork eskatzen duen adieraziko duena. Idazpen-orri hori eskaera egin aurreko sei hilabeteen barruan eguneratua egon beharko da. Ontzi baten titularra izanez gero eta ontziak zein bere propultsio-ekipoak CE marka badute, inskripzio-egiaztagiriaren kopia konpultsatua aurkeztuko da.

☐ h. Ontziaren argazkia, 10x15 cm-koa.

☐ i. Eskaeraren unean indarrean dagoen ontziaren aseguru-poliza eta azken ordainagiria, indarrean dauden legezko xedapenek eskatutako estaldurekin (erantzukizun zibileko aseguru derrigorrezkoa, ontzi-hondarrak portutik kentzeko estaldura barne hartzen duena).

☐ j. Dena delako portuko edo portuko instalazioetako amarralekua aldi batez erabiltzeko baimena, hala badagokio.

**ADIERAZPENAK**

1. Eskatzailea idazpuruko zazpigarren zerrendan inskribatutako kirol-itsasontziaren jabe dela edo jabekide gainerako titularkideen proportzio berean edo altuagoan.
2. Indarrean dauden portuko-tasak ezagutu eta ordaintzeko konpromisoa hartzen duela, EAEko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuari jarraiki.
3. Egiazkoak direla eskabidean eta harekin batera aurkeztutako agirietan jasotako datuak.
4. Indarrean den araudian ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela, eta hala dela egiaztatzen duten agiriak dituela.
5. Eskabide hau izenpetuz baimena ematen diola eskabide hau kudeatzen duen atalari, dagokion administrazioan baliabide elektronikoen bidez, edo, bestela, aukeran dauden baliabideen bidez,datuok egiaztatzeko baieztatzeko edo ziurtatzeko.
6. Ontziaren benetako neurriak (bata bestearengandik urrutien dauden puntuen arteko aldea, finkoak ez diren osagai lagungarriak barne) esandakoak direla.
7. EAEko porturen batean edo portu-instalazioren batean ontzi berarentzat beste amarraleku baten titular direnek bakarrik aurkeztu beharrekoa: ontzi berarentzat .....ko portuan dagoen beste amarraleku baten jabe dela: .....zenbakidun amarralekua.

Tokia eta data :.....

Sinadura:

Zure datu pertsonalak “Portu-aldeko jabari publikoko emakidak eta baimenak” eta “Portuetako tarifak” izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartuko ditugu, hala agintzen baitu Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak 5. artikuluan. Datu horiek bildu eta lantzearen helburua administrazio-prozeduraren jarraipena eta kontrola egitea baino ez da. Datu horiek eskuratu, zuzendu, baliogabetu eta horien kontra agertu nahi baduzu, Garraio Azpiegituren zuzendariarengana jo behar duzu. Hona helbidea: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila, Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.